



LED MOTAKO BONBILLAK ENERGIA AURREZTEKO

Anoeta eta Villabona arteko ibilbideko argiterian jarri dituzte; Gipuzkoan lehen a izan da Anoetako herria »3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-01-30

VIII. URTEA 1.916. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

PILAR ARTALOYTIA ANDERENAHIA ELKARTEKO KIDEA

«Emakume guztiak batera indar handia dugu besteei laguntzeko»

TOLOSA Iparraldeko emakume enpresari taldeak bere esperientzien berri emango du otsailaren 2an

LANBIDEA «Bateratzeko modua norbere enplegua sortzea dela konturatu garen emakumeak gara», dio Artaloytia 2



Anoetako Kuku-Lore liburu dendan, zailtasunak zailtasun, postalak euskaraz eskuratu daitezke. I. GARCIA

EUSKARA NAGUSI SALTOKI GEHIENETAN

TOLOSALDEA UEMAren eskualdeko herrietako establezimenduen %94ean euskarazko ahozko tratua bermatua dago 6-7



Andueza gazteria zinegotzia eta Iturzaeta kultur zinegotzia. I. TERRADILLOS

Kultura «bide onetik» doa nahiz eta krisiak eragina izan duen

TOLOSA Udaleko Kultura eta Gazteria sailek pasa den urteko balantze «baikorra» egin dute 5

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^o OTAÑO HERRI ESKOLA

Paganuño 02000, 16 - ZIZURKIL

☎ 943 6914 78 Posta elektronikoa: 012041@hezkuntza.net

E Elkarrizketa**PILAR ARTALOYTIA** › AndereNahia elkarteko kidea**Berdintasuna**

AndereNahia Iparraldeko emakume enpresari taldeak bere esperientzien berri emango du asteartean Berdintasun Sailak antolatatu duen hitzaldian.

NOELIA LATABURU

Otsailaren 2an, asteartean, 18:00etan udaletxeko pleno aretoan AndereNahia taldeko kideen hitzaldia izango da entzungai. Iparraldeko emakume enpresarien talde honek euren esperientzia plazaratuko du. Pilar Artaloytia (Bilbo, 1969) taldearen izenean hitz egin du eta Tolosaldeko emakume guztiak gonbidatu nahi ditu hitzaldira «gaia astuna dirudien arren oso aberasgarria» izango delako bertan aztertuko dutena.

Zer aurkeztuko duzue Tolosan?

Tolosaldeko emakumei gure esperientzia azaldu nahi diegu funtsean. 2002. urtean sortu zen elkarte eta euren enpresa sortu duten edota sortzen ari diren emakumeok osatzen dugu taldea. Azken batean, bateratzeko modua norbere enplegua sortzea dela konturatu garen emakume taldea gara. Enpresa pertsonalak dira oro har.

Zer egoera topatzen du enpresa bat sortu nahi duen emakumeak?

Batik bat, bakardadea. Oso bakarririk sentitzen zara zure gain hartu behar dituzun gauza askoren aurrean. Esaten den bezala, elkartzekak indarra dakar; horregatik elkarririk laguntzen diogu, gure esperientziak, gure kompetentziak eta gure umore ona konpartitzen ditugu. Gure arteko elkartzasuna eta bakoitzaren esperientzia partekatzen dugu. Izan ere, zure egoera berdinean dauden emakumeen esperientziak jasotzea lagungarria da.

Nola aurkitzen da une honetan elkarteak?

Une honetan 50 kide inguru gara baina zortzi urte hauetan zehar 200 lagun inguru igaro dira.

Zein izan da zuen lana denbora honetan?

Enpresasortzen laguntzen duten elkarte dezente daude, baina alde

«Zure egoera berdinean dauden emakumeen esperientziak jasotzea oso lagungarria da»



HITZA

teknikoari erreparatzen diote. Argi dago emakume bezala ikuspegi globalagoa dugula. Hau da, guretzat ez da izango bakarrik enpresa bat sortzea baizik eta pentsatzea nola uztartuko dugun hori gure familia bizitzarekin edo egoera pertsonalarekin. Beste instantziatan ez da kontuan hartzen hau; guk emakumeari dagozkion arazo haurerareparatzen diegu. Halaber, alde teknikoan ere laguntzen dugu, juridikoki, fiskalitatean, arlo komertzialean... Baina hau ere emakumearen ikuspegitik.

Nola uztartu daitezke, bada, bi alorrak?

Zoritzarrez, ez dugu makilatxo magikorik; enpresa propioa izateak autonomia bat ematen digu. Esaterako, seme-alabak gaixo daudenean libratu ahal izateko. Soldatapeko langilea bazara hau ezin duzu aurrera eramanez.

Enpresa munduan, oztopo gehiago topatu al dituzue emakume izateagatik?

Enpresa munduan bizitzan bezala gertatzen da. Agerikoak diren gau-

zak topatu daitezke. Frantziari erreparatu, emakumeak biztanleria aktiboaren %48 gara, baina enpresen sorkuntzaren %30 baino ez dugu betetzen. Honek esan nahi du, besteak beste, banku batek errazago finantzatu duela gizoneneko batek sortutako proiektu bat. Oraindik diskriminazio handia dago. Bestalde, emakume bategaritutako proiektu batek sinesgarritasun gutxiago du oraindik. Azkenean emakumeek irudi bat sortzen dugu non ez garen proiektuak bultzatzeko gai ikusten. Askotan guk geuk zentzurik gabeko gabezia batzuk hartzen ditugu gure gain. Emakume guztiak batera indar handia dugu beste laguntzeko.

Enpresa baten jabe diren emakumeak gerturatu dira elkartera?

Noski, era guztietako emakumeak ditugu. Buruan ideia bat dutenetatik abiatuta, bankuetako finantziarioaren kontuei aurre egin behar dietenak eta euren enpresaren garapenean buru-belarri daudenetara. Orain, mugaz bestaldeko eki-

menak martxan jartzen hasi gara eta beste herrialdeetan gertatzen dena jakin nahi duten emakumeak ere badaude. 5-6 emakumeri ere enpresa ixten lagundu diegu, garrantziatsua da ikustea une gogor horietan ez zaudela bakarrik, beste proiektu bati gogoz eusteko.

Krisi finantzarioak bereziki eragiten dio emakumeari?

Krisi ekonomiko batean beti ahulenak geratzen dira atzean. Instantzia altuetan atzerakada moduko bat dago «Ondo, harrela emakumeak etxean geratzen dira umeak zaintzen» esateko. Hau besteentzat lanpostuak uzteko modua baino ez da. Diskriminazioa krisi garaian areagotu egiten da.

Zer moduzko onarpena izan duzue maila instituzionalean?

Hasieran arraro begiratzen gintuzten. Baina onarpen ofiziala jaso dugu. Une hauetan Europar Fondo Sozialaren laguntza dugu, Frantziako berdintasun ordezkariak ere asko lagundu digu, urtero Baionako Ganberak antolatutako sormen jaialdira gonbidatzen

gaituzte... Pixkanaka esperientziak partekatzearen gure ideia harrera ona izaten ari da.

Eta jendartearen harrera zein izan da?

Ez gara elkarte handi bat, pentsatzen dugulako gutxien artean hobeto elkar lagundu gaitzkeela. Baina AndereNahia buruz hitz

«Pixkanaka esperientziak partekatzearen ideia harrera ona izaten ari da maila instituzionalean»

egiten da. 2005ean, esaterako, foro bat antolatu genuen enpresen sortzearen inguruan eta 100 lagun inguruk hartu zuten parte.

Frantziatik haratago, bestelako esperientziak biltzen al dituzue?

Horretan ari gara lanean, pasa den abenduaren 2an, esaterako, Hegoaldeko elkarte batzuetako ordezkariarekin bildu ginen, emakume ikuspegitik enpresan lan egiten dutenak, artean Tolosako Udaleko ordezkariak ere. Gure ideia sareak sortzen jarraitzea da.

Enpresan berdintasunerako planak aurrera eramaten dira?

Nire esperientzia enpresa oso txikitara mugatzen da. Esan dezake-dana da ofizialki Frantziari hasi direla desberdintasun horiek estaltzeko hainbat bide aplikatzen.

Zer behar duzue Tolosatik gusturaz bultzatzeko?

Emakumearen ongizatearen eta orekaren alde lana egin nahi duten emakumeak topatu nahi ditugu. Baita gure esperientzia partekatu ere. Udaletik azaldu digutenez, denboraren bankua ari dira prestatzen, hau ere kompetentzien truke bat da, proiektu oso interesgarria da, izan ere, emakume bakoitzari egin dezakeenaz jabetzea baimentzen dio. Azken batean hau da gure trukearen oinarria.

MARTXOAREN 18AN, «EZPELETA EUSKADIKO HIRIBURU BILAKATUKO DA»

Martxoaren 18rako Ezpeletan herrialde mugakideen arteko jardunaldia antolatu dute. 10:00etan ekingo diote egunari, kafe tertulia batean. Bertan, mugaz gaindiko gaietan lanean diharduten emakumeen esperientziak biltzen dituen bideoa izango da ikusgai. Ondoren, eztabaidak egingo dituzte, enpresen sorkuntza alorrean dauden komuneko praktika ezberdinei buruz. Bazkaria ere egingo dute eta 17:00ak aldera ondorioak bilduko dituzte.

«Denen artean sareak osa daitezke, emakumeen ikuspegiaren enpresak garatzen laguntzeko». Hain zuzen, honen inguruan jardungo dute, besteak beste. Pilar Artaloytia Tolosan bilduko diren emakume guztiak ere gonbidatu nahi ditu bertara: «Elkarrekin lanean aritu nahi duten emakumeak bilduko gara. Oso dibertigarria izango da, sorpresak ere izango dira». Martxoaren 18a, Ezpeleta Euskadiko hiriburu bilakatuko dugu».

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 90491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNADUTAKO HEDABIDEA



Anoeta eta Villabona bitarteko ibilbide zatia argiztatu berri dute. HITZA

LED motako bonbillak jarriz ingurugiroa zaindu eta energia aurreztuko dute

Anoeta » Gipuzkoako lehen herria izan da teknologia hau erabiltzen; Anoetatik Villabonarako ibilbidean jarri dituzte.

ENERITZ MAIZ

Anoetako Udalak, energia aurreztearen eta ingurugiroa zaintzearen aldeko jarrera erakutsi du, Anoeta eta Villabona arteko ibilbideko argiteria publikoa, LED motako teknologia duten farolen bidez argiztatzea erabaki baitu.

Anoeta herria, Gipuzkoako lehena izan da modu honetako ar-

giztapena jartzen eta baita teknologia berrien erabilera ere. Dagoeneko, ibilbidearen zati bat argiztatu dute eta Erka Materiales Electricos izan da arduraduna. Udalak, kosturik ez duen hitzarmena sinatu du enpresarekin.

Energia aurreztuz, ingurugiroa zaintzeko bide bat

Argiztapen mota honekin, 5,64 tona CO2 atmosferara isurtzea galaraziko du Anoetako Udalak. Eta orain arteko tradiziozko argiteria publikoarekin alderatuz, urte guztian, 14Kw/h kutsadura maila jaitziko dute. Argiteria publiko mota hau, energia ahalik eta gehien au-

rrezteko helburuarekin diseinatuak izan dira. Era berean, maila altuko argiztatzeak eta uniformeak egiten dituzte. Bonbilla hauen bizi iraupena ere luzea izango da, hau da, 100.000 ordu edota 20 urtekoa, hain zuzen ere.

Alde honetatik ere, orain arteko farolekin alderatuz, Udalaren mantentze gastuak murriztu egingo dira baita bonbillak berrezartzen ere. Eta aldi berean, herriak urtean zehar kontsumitzen duen energia murriztuko dute.

Momentuz, errepideak, autopistak, biribilguneak, bidegorriak edota tunelak argiztatzeko baliatuak izan dira LED bonbillak.



Edurne Bereziartu Gurea Zineman

VILLABONA » Jesusen Bihotza ikastolak antolatatu duen IV. Kultur Astearen baitan atzo Edurne Bereziartu eskalataileak herritar guztiei irekia izan zen *Erori eta beriz hasi* hitzaldia eskaini zuen Gurea Antzokian. Bes-

talde, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolak biharko antolatua zuen Ibilaldi neurtua eguraldi txarra dela eta astebetetzatzeratuko du. Argazki lehiaketaren sari banaketa ere egun horretan egingo da. E.MAZ

Asvinenean parte hartu zuten antzerkiak Donostian ikusgai

Aduna » Donostiako Kontadores Zentroak antolatuta antzerkiak dohainik ikusteko aukera izango da Bidebietan.

ERREDAKZIOA

Gaur, Kontadores Zentroak, Donostiako Udalaren Gazteriaren ekipamenduan, hiru saio txikirekin emanaldia eskainiko du.

Bidebieta auzoan dagoen Pasai San Pedro Etorbidea 13, behean, *Antzerki Amateur Jardunaldiak*

programaren barruan izango dira eta Asvinenearekin batera antolatutakoak izan dira.

Ordu batean zehar, *Artista en el Aire*, *Hermanikoa* eta *Trube* taldeek beraien istorio laburrak aurkeztuko dituzte. *Suyanema Taldeak* ordea, istorioen haria jarraituko du hiru antzerkiak aurkezten diren bitartean.

Antzerki hauek Asvineneak 2009. urtean antolatu zuen Poltsikoko Antzerki Lehiaketan parte hartu zutenak dira. Saioa 20:00etan hasiko da eta sarrera dohainik izango da.

Laburrak

Santa Ageda Bezperan kantuan ateratzeko deia

ANOETA » Loatzo Musika Eskolakoek Santa Ageda bezperan kantuan ateratzera gonbidatu nahi dituzte herritarrak. Entsegu orokorra, otsailaren 3an, asteazkena egingo dute 19:30ean ikastolan. Egunean bertan, Baserrietara joateko, 15:30ean elkartuko dira plazan eta kalez kale ibiltzeko berriz, 18:00etan.

Eresargikoak Santa Ageda Bezperan kantuan

VILLABONA » Eresargi abesbatzak Santa Ageda Bezperan kantatzen ateratzeko deia luzatu du. Herritar guztiei gonbitea luzatu nahi izan die Santa Ageda bezperan, hau da, otsailaren 4ean beraiekin kantatzera ateratzeko animatuz. Horretarako eta alde zurretik ezarriak berotzen hasteko, otsailaren 1ean, entsegu txiki bat egingo dute 20:00etatik aurrera Villabonako Kultur Etxean.

Eskuz banaka kadeteen partidak trinketeen

IRURA » Gaur 15:00etatik aurrera, Irurako trinketeen, Eskuz banakako kadeteen Finaleko partidak jokatuko dira. Finalera iritsi diren bi taldeak Gazteleku eta Oiarpe 1 izan dira. Txapela eskuratzeko lehia bi talde hauen artean izango da.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Urrezko katea.** Amezketako Zazpi-Itturri inguruan urrezko katea aurkitu da. J.Z. inzialekin. Deitu, 678 47 66 12 telefono zenbakira.

Eguraldi txarragatik Oargiren irteera atzeratuta

TOLOSA » Oargi Mendi Elkarteak Pic De Sesques mendira joateko irteera antolatu zuen astebururako eta eguraldi txarra dela eta, otsailaren 5etik 7ra egingo dute. Ostiral arratsaldean abiatu eta igandean egingo dute etxerako buelta. Izena 19:00etatik aurrera 688 69 86 42 telefono zenbakira deituz edota oargi@euskalnet.net helbidera idatziz eman daiteke.

Bi film ezberdin ikusteko aukera Gurea zineman

VILLABONA » Gaur 17:00etan *Dos Canguros muy maduros* filma eskainiko dute Gurean eta 19:30ean eta 22:30ean, aldiz, *Todo es culpa de mi madre* ikusteko aukera izango da. Igandean, hilak 31, 17:00etan *Dos Canguros muy maduros* filma eta 19:30ean *Todo es culpa de mi madre* filmak egingo dira ikusgai. Astelehena, otsailak 1ean, ikuslearen eguna, 21:30ean *Todo es culpa de mi madre* filma.

Emakumeen Eguna antolatzeko bilera deialdia

IKAZTEGIETA » Otsailaren 1ean martxoak 8ko Emakumeen Eguna nola ospatu erabakitzeko elkartuko dira Kultura Batzordeko kideak 20:30ean Udaletxean. Nahi duenak parte har dezake.

SALGAI

■ **Egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremantarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.



Manifestazioa eta gero itxialdia

IBARRA ■ Ibarra herritar talde batek baraualdia hasi zuen atzo udaltxean. Lehenik eta behin manifestazioa egin zuten herrian barna eta ondoren sartu ziren udaltxera bertan asteburua igarotzeko asmoz. Euskal presoek hasitako borrokaldiarekin egin dute bat Ibarra baraualdiarekin. Asteburuan zehar propaganda banatuko dute eta presoek gutunak idatziko dizkiete, besteak beste. N. LATABURU

Euskal Herriko Wushu-Kung Fu-Taichi Txapelketa, gaur

Leitza ■ Pasa den abenduaren 19an egin behar zuten, baina orduan izandako elurtearengatik atzeratu zuten.

ERREDAKZIOA

Gaur 11:00etatik 13:00etara Euskal Herriko Wushu-Kung Fu-Taichi Txapelketa ospatuko da Leitza kiroldegian. Berez, pasa den abenduaren 19an egin behar zuten, baina orduan izandako elurtea medio atzeratzea erabaki zuten.

Txapelketako antolatzaileak Aurrera Kultur Elkarte eta Wushu-Kung Fu Euskal Federakundea dira eta ikuskizun «harrigarria» izango dela argitu dute.

Epaimahaikak «formak» epaituko ditu, parte hartzaileek 3 minutu inguruko koreografiak egin behar dituztelarik.

Aipatu behar da, era berean, txapelketan ez dutela emakumezkoen eta gizonezkoen arteko bereizketarik egingo.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

G Gutunak

Kapitalismoaren krisia eta langabeziaren aurkako borroka

Krisi ekonomikoaren ondorioak oso gogorak izaten ari dira langileentzat eta beren familientzat. INEMen arabera, 2009ko abenduaren 2.398 langabete eta Hego Euskal Herriaren 168.854 langabete ziren. Eta perspektiba beldurgarria da: 2012 urtera arte gutxienez kopuru hauek mantenduko omen dira. Horregatik, langabeziaren aurkako borroka sindikatuen, ezkerreko alderdien eta herritar guztien borroka garrantzitsuenetakoa izan behar luke. Kontua da, langabeziaren aurkako borroka modu eraginkorren nolako neurriekin egin behar gero geniokeen aurre.

Gure ustez, langabeziaren aurkako programak ideia nagusi batean oinarritu behar du: langabezia-

ren arazoa, langileria bere osotasunean eragiten dion arazoa da eta ez soilik lanik gabe geratzeko zorte txarra dutenena. Langabeziak noski berehala eragiten dio kalertua denari edo lehenbiziko lanpostua aurkitzen ez duenari. Baina, ondoren langabeziak lana dutenen aurka egiten du hauen lan baldintzak okertzen baitira. Eta langabeziaren mehatxua langile guztien gainean dago. Horregatik, langabeteen eta lana dutenen borroka elkartzearen beharra ez da modu abstraktu batean 'elkartasuna' emateko, baizik eta langileen batasuna praktikan behar-beharrezkoa da langileriak bere osotasunean krisiaren ondorioei modu eraginkorrean aurre egiteko.

Langabeziaren aurkako borroka kontsekuenteak, langile bakar batere eskan ibiltzetik, karitatetik edo asistentzia sozialetik bizitzera

behartuta ez egotea izan behar luke helburu. Langabeteak ez dira enpresari hartu dituzten erabakien errudunak ezta kapitalismoaren funtzionamendu orokorrarenak ere. Horregatik, langabezia kobratzeko legeak ezarritako epea bukatzen denean, lanpostu baten edo lanbideen arteko gutxieneko soldata mugagabe baten eskubidea aldarrikatu behar da. Espainiar Estatuan adibidez, langabete gutzientzat urte batez lanbideen arteko gutxieneko soldata bat bermatzea posible izango litzateke Santander Banketxeak 2008an izan dituen irabaziaz baino gutxiagorekin.

Eta zer egin enpresari EREak aurkezten dituzten lantokietan? Egia da krisia lantokietan eragiten ari dela. Baina, langileok kontabilitatea ikusiz, enpresaburuek zein erabaki hartu dituzten eta azken urteetako etekinak nora joan diren

jakin ondoren, lantokietako egoera zein den egiaztatu behar dugu. Nahiz eta lantokia krisian egon horrek ez du esan nahi ondorioak langileek ordaindu behar dituztenik. Langabeziari kaleratzen aurka eginez egingo diogu aurre.

Gure ustez, dagoen lana langile guztien artean banatu behar litzateke. Krisian dauden lantokiak mobilizazioetan elkartu behar dira gobernuei diru publikoa enplegua mantentzeko erabili dezaten eta lantokiak langileen kontrolpean nazionalizatu daitezten eskatzeko.

Langabeziaren aurkako aldarrikapen garrantzitsu hauek lortzeko borroka da bide bakarra eta sindikatuetako zuzendaritzek langileak antolatuta eta mobilizazioetan elkartzerakoan ardura handia dute. **Manu Odriozola.** Tolosa. Euskal Herria Sozialista aldiakariaren zinearen.

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

SAMARIE O
www.samarieo-berria.com
www.samarieo-berria.com

ORDIZE TOLOSAN
www.ordize.net
www.ordize.net

Euskaratik eta Euskaraz
Matrikula epea: otsailaren 1etik 12ra

LASKORAIN IKASTOLA
Laskorain ikastola, 2010eko Urtarrilaren 20a

KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA ETA ELEANITZA 0-18 URTE
www.laskorainikastola.net | 943 697 127

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik 12ra

Matrikulazio Ordutegia:
© 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net

Irurako Ikastola

- (2-12 URTE)
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza

"HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN"

Zilar kalea 4 - San Migel 5 • IRURA - Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

Krisiak eragina izan duen arren, kultura «bide onetik»

Kultura » Gazteria saileko datuekin ere «gustura» dago Udala; aurrekontua murriztu arren, eskaintza mantendu egin nahi dute.

INIGO TERRADILLOS

Kultura eta Gazteria sailek 2009 urteko balantze «baikorra» egin dute. Krisiak eragina izan duela nabarmendu dute, baina, hala ere, iaizko jarduerak «harrera eta emaitza onak» izan dituztela azaldu dute. Balantzea bi sailek egin dute, baina aurrerantzean orokorragoa izatea nahi dute, hainbat sailek koordinatuta lan egingo baitute. Dagoeneko elkarrekin ari dira lanean, eta asmoa kultura, gazteria edota berdintasun sailen arteko koordinazioa egotea da. Aurtengoari begira, berriz, aurrekontuan murriztapena egongo den arren, «pasa den urteko eskaintza mantentzea» espero dute.

Zinema «indartsu»

Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak zinematik Tolosan duen harrera azpimarratu zuen atzoko agerraldian: «beste herrietan behar akada nabaritzen den arren, Tolosan oso emaitza onak izan ditugu aurtenera, eta gainera, prezio baxuagoan ikus daitezke filmak». 2009an ia 22.000 abonatu saldu zituzten eta 46.000 ikusle izan ziren.

Ikuskizunen kalitatea

Ikuskizunei dagokionez, Iturzaetaren arabera, «pasa den urteko eskaintza kalitatezkoa eta zabalagoa izan zen». Mundua Tolosan ekimenaren baitan antolatutako Dulce Pontes eta Wim Mertens-en kontzertuak nabarmendu zituen, eta aipatzekoak dira ikusleen kopuruari dagokionez, baita ere, Pirritx eta Porrotx, Benito Lertxundi, Tricicle edota dantza tailerren koen ikuskizuna, besteak beste.

Topic-ekin, bigarren aretoa

Bestalde, Leidor aretoarekin batera, pasa den urteko abendutik erabilgarri dago beste areto bat, Topic Txotxongiloen Zentroan dagoena, hain zuzen, eta hori «oso positibotzat» jotzen dute. «Aukerak handitzen dira tamaina erdiko areto bat izatearekin, beraz, gusturagaude, eta herritarrek ere gusturatu hartu dute».

Kultur tailerren «arrakasta»

Kultur tailerrak ere «bide beretik» doaz, eta dagoeneko egonkortu direla esan daiteke, «urtero izaten baitute harrera ona». Iaz 417 ikasle aritu ziren Udalak proposaturiko tailerretan, horietatik ia erdia ballet-ean. Horrez gain, argazkigintza, zeramika eta pintura ikastaroek «arrakasta dute urtero bezala».

Haur Liburutegia, egonkortuta

Dagoeneko egonkortu den Udaleko beste zerbitzu bat Haur Liburutegiarena dela azaldu zuen kultur zinegotziak. Izan ere, egunero 159 bisitari izan zituen iaz eta 110 mai-legu, eta «hori erabateko arrakasta da». Honi, gainera, udan eskaintzen duten igerilekuko liburutegi zerbitzua ere gehitu behar zaio, «harrera oso ona izaten duelarik».

Helduen Liburutegia gorantz

Egonkortuta ez, baina «urtetik urtera harrera hobea» izaten ari da Helduen Liburutegia. «Urteetan egon den dinamika ezak zerbitzuaren erabilera jaitea bultzatu zuen, baina azken urteetan zerbitzua asko hobetu da, baliabide pertsonaletan gehitu egin delako, besteak beste, eta emaitzetan nabari da, mailegu eta bisitari kopurua igotzen ari delako».

Erakusketak aztergai

Erakusketen gaia «oraindik ere landu beharreko gaia» dela uste dute Udaletik, «ez baitute esperotako emaitza izaten». Iturzaetak aipatu bezala, «alde egoten da erakusketak bat tolosarrek egina edota Tolosarekin nolabaiteko lotura duenean, orduan harrera ona izaten baitu». Horren adibide lituzateke, esaterako kultur tailerren koen erakusketak, baina, era berean, txotxongiloen erakusketak ere «arrakasta handia» izaten du. Hori bai, kultur zinegotziak esan bezala, «Aramburun jartzen diren erakusketak guztiak kalitatezkoak dira».

«Mugimendua duen herria»

Herriak dituen azpiegituretan Kultur Etxeari ematen zaion erabilera ere nabarmendu zuen Iturzaetak, «herritar ugari erabiltzen baitute urte osoan zehar». Pasa den urtean, ia 1.000 bilera egin ziren bertan, «herri mugimendu handia dagoen seinale».

Gazteria sailetik ere «baikor»

Joxelu Andueza gazteria zinegotziak Tolosan «eskaintza zabalago» egoten dela astebururo nabarmendu zuen, «bai ikuskizunetan bai eta kirolotan ere». Gazteei zuzendurikoetan, Topagunea nabarmendu zuen, «arrakasta handia» izaten baitu. Pasa den urtean 12 eta 16 urte bitarteko 12.900 gazte igaro ziren Kultur Etxeko lehenengo solairuan dagoen Gazte Topagune-tik. Antolatzen diren ekintzen artean daude, baita ere, Tolosa Kup, Diskojaia, Gipuzkoa Encounter, San Joan jaietako graffiti eta skate jarduerak, GKO galeriakoekin egindako ekintzak edota Gabonetako Olentzero eta Erregeen kabalgata, besteen artean. «Partehartze handia izan da guztietan».

Bedaion egin zuten auzolanderia ere azpimarratu zuen Andue-

zak. 50 gazte hartu zuten parte, eta «ederki igarotzeaz gain, bedaiotarrak gustura geratu ziren eurek egin zuten lanarekin».

Lokalal eta gazte lokalak

Bestalde, Tolosan musika talde ugari daudela kontuan hartuta Amarotzen entsegetarako lokalak egokitu dituzte. Eurekin hitz egin dute, eta bertan entseatzeko ordutegia finkatzen ari dira. Musika taldeak bezala, asko dira herrian dauden gazte lokalak, 20, hain zuzen. Bertako gazteekin bilerak ere izan dituzte, «aholkua eman, dauden zalantzak argitu, eta Udalarekin harremana bultzatzeko».

Informazioa zabaltzea

Gazteei zuzenduriko informazioa zabaltzeko, batetik, zazpitantrian-gulon.com webgunea, eta bestetik, sms zerbitzua dute. Beste hainbat bide ere badituzte «ahalik eta gazte gehienei eurentzat den informazioa iristea» lortu nahi baitute.



Pintura tailerra da urtetik urtera harrera handienetakoa duena. H. BELLOSO

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA
Euskalduna, Denona eta Denontzat
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua
JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik 12ra

Fleming Ikastetxea.
Haur Hezkuntza Arrean (2-4 urte)
Lan Hezkuntza Arrean (5-12 urte)
Tel.: 943 69 25 12 • Tel./fax: 943 69 14 13
012277@hezkuntza.net

Emiabea S.H.L.
Villabona
Emiabea Ikastetxea.
Derrigorria Sigeren hezkuntza
Arrean (12-16 urte)
Tel./fax: 943 69 27 33
012932@hezkuntza.net

HEZKUNTZA ELEANITZA, EUSKARA ARDATZ DELA JANGELA ETA GOIZ-TXOKOA ZERBITZUAK

HH-LH-DBH

Villabona: Berrita 55, Tfno: 943692121; Teorren z/g Tfno: 943692056; Duziara: Pajonuko z/g Tfno: 943691275
villabona@hezkuntza.net www.hezkuntza.net

hirukide

www.hirukide.org

KALITATEZKO HEZKUNTZA TOLOSAN

Euskarazko ahozko tratua bermatua dago establezimenduen %94ean



UEMAren zerbitzuen artean merkealdian produktuak zenbat merketu diren adierazteko txartelak daude. I. GARCIA

Euskara » Eskualdeko UEMAKo herrietan merkataritza kanpaina egiten ari dira eta jasotako datuen diagnostikoa «oso positiboa» da.

IMANOL GARCIA

Eskualdeko UEMAKo herrietan merkataritza kanpaina egiten ari dira UEMA bera, Galtzaundi euskara elkarte eta Kontseilua. Jasotako datuen arabera, 2009an zehar bisitatu dituzten 116 establezimenduetatik 109tan, %94ean, bermatuta dago euskarazko ahozko tratua. Imanol Haro UEMAKo hizkuntza normalizatzaileak azaldu duenez, diagnostikoa «oso positiboa da». Kanpainak hamalau herri eta milaka biztanleko eremua hartzen du, nahiz eta denak elkarren ondoan egon ez. Datuek

erakusten dutenez «merkatariek normalean euskararekiko jarrera ona dute», azaldu du Harok. «Normaltasunez hartzen dute euskaraz egitea, ahozkoa batez ere», gaineratzen du.

Tolosaldean UEMAn dauden herriak hamabost dira: Aduna, Irura, Anoeta, Elduain, Belauntza, Leaburu-Txarama, Gaztelu, Orea, Alegia, Alto, Orendain, Ikaztegieta, Baliarrain, Amezketeta eta Lizartza. Merkataritza kanpaina Kontseilua, Galtzaundi eta UEMAKo arteko elkarlanaren ondorioa izan da. Elkarlana Bai Euska-

rari Ziurtagiriaren mende egiten dute eskualdeko UEMAKo herri guztietan. Duela bost urte inguru hasi zen elkarlan hori eta hainbat ekimen dituzte merkataritza kanpainaz gain: hizkuntz eskubideen aldeko kanpaina iraunkorra, lan munduko egitasmoak (Irura, Anoeta eta Aduna) eta herrietako gutu-nontzietan jasotzen den propagandaren neurketa.

Datuak jaso eta zerbitzuak eskaini

2009an, eskualdeko ia herri guztietako merkataritza eta ostalaritza saltokiak pasa dituzte, hau da, dendak eta taberna-jatetxeak. Bisitan Galtzaundiko Nora Olano eta Amaia Doyague, Kontseiluko Juanlu Aranburu eta UEMAKo Imanol Haro joaten dira. Saltokietara joan aurretik herri bakoitzeko

Udalararekin merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako datuak eguneratzen dituzte. Udalarren aldetik gutun bat bidaltzen zaie dendariei, bisitan pasatuko direla iragartzeko.

Teknikariak euskararekin nola jokatzeko duten jasotzen dute bisitetan: langile euskaldunak dituzten; ageriko errotuluak nolakoak diren, kartelak eta oharrak euskaraz dituzten; agiriak euskarazkoak diren; hedabideetako publizitatea euskaraz jartzen duten.....

Datuak jasotzez gain, UEMAKo eskaintza aurkezten diete. Alde batetik hiztegi espezializatuak dituzte: taberna eta jatetxetarako, arrandegietarako, harategietarako, janari dendetarako eta ile apaindegietarako. «Taberna edo jatetxe batzuetan esaten digute ez dakitela menua euskaraz jartzerakoan hizkuntza zuzen erabiltzen ari diren», dio Harok. «Horrelako kasuetarako hiztegitxoak daukagu, denda mota bakoitzari egokitu».

Bestalde, hainbat kartel mota eskaintzen dituzte: merkealdia dagoela adierazteko, prezioak zenbat merketu diren azaltzen duena, astelehenetan itxita dagoela esateko, edo taberna batean erretzerik dagoen ala ez jakiteko. Euskarazko agiriak eskaintzen dituzte ere: faktura takoak, loteriaren partizipazioak egitekoak, ordainagiriak... Horrez gain bestelako laguntza eskaintzen diete. Adibidez, taberna batek prezioen zerrenda euskaraz jaso nahi badu ostalaritza elkarte-ari gutuna bidaltzeko laguntza ematen dute.

Guztira 97 eskaera jaso dituzte kanpaina zehar. Zerbitzu horiek doakoak dira. Bestalde, etengabeko zerbitzua dela zehazten du Imanol Harok, dendariak behar dutenerako. Kanpainaren finantziazioa udalkek UEMAKo ematen dioten kuotatik bideratzen da.

Bisitaren baitan ere, establezimenduan euskararekiko jarrera ona badute, Bai Euskarari Ziurtagiriaren gaineko informazioa eskaintzen diete.

Ondorioak

Kanpainaren diagnostikoa egitekoan, hiru ondorio nagusi jaso dituzte. Alde batetik, «merkatariek gehienek ezagutzen dute UEMAKo materiala eta eskaintza, eta estimatzen dute zerbitzua», azaltzen du Harok.

Bestalde, «ezinbestekoa da aldi behin eskaintzaren berri ematea eta gogoraraztea doakoa dela. Bestela, ahazteko arriskua dago». Hori dela eta, 2010eko egutegia oparitu diete, mahai gainean jartzen den horietakoa, telefono zenbakia eta eskaintza begien aurrean izateko. «Zenbait merkatariek uste dute unean uneko kanpaina dela, baina ez da horrela, etengabeko zerbitzua da. Eta

Euskararekin saltokietan nola jokatzeko duten aztertzen dute teknikariak bisitetan

emandako zerbitzuak beti dohanik dira», gaineratu du UEMAKo teknikariak.

Establezimendu jakin batzuetan UEMAKo ohiko zerbitzuetik haragoko zerbitzu behar dutela ikusi dute, hau da, euskarazko agiriak eskatzeko agiriak prestatzea, prezioen etiketak euskaratzea, errotuluak euskaratzea, euskarazko produktuak bilatzeko aukera ematea...

Zailtasunak

Izan ere, zenbait establezimenduetan kartelak euskaraz jartzeko arazoak dituzte. Anoetako Maite janari-dendako Begoña Urkizu kezaxten denez, supermerkatu taldearen egoitza nagusitik ez dituzte zenbait kartel euskaraz jasotzen. «Erakuslehoan eta apaletan jartzen diren eskaintza-kartelak gaztelaraz bakarrik bidaltzen dituzte», azaltzen du Urkizuk. «Euskaratzeko eskatzen diegu, baina erantzuten digute guri bakarrik egiten diegula eskari hori eta guretzako bakarrik ezin dutela horrela korik egin».

Hilberria

JOXE IRAZUSTA LEUNDA
(G.B.)

Zenbatkontu, zenbat barre, zenbat jolas egin dugun elkarrekin.

Ez zaitugu iñioiz ahaztuko!!

ALEGIA
2010eko urtarrilaren 30a

Iñaki, Mari Jose, Izaro eta Ibai

JOXE IRAZUSTA LEUNDA
(UDALTZAINA)

«Lehen gurekin orain gugan»

TOLOSA
2010eko urtarrilaren 30a

Tolosako Udaleko langileak

JOXE IRAZUSTA LEUNDA

Bat-batean zuria beltza, bat-batean eguna gau, Herio maltzur etorri zaizu eta eraman zaitu rau! gorputza ostu dezake baina oroitzen hor dirau, egin dituzu trafiko lanak, zenbat zaintza, txoten, arau, hori guztia eskertu nahian zuretzat, Joxe, bertso hau.

TOLOSA
2010eko urtarrilaren 30a

Tolosako Udala

» DATUAK

Orokorrak

- **Establezimenduak.** Guztira 116 bisitatu dituzte.
- **Eskaerak.** 97 eskaera jaso dituzte establezimendu horietatik.
- **Euskarazko ahozko tratua.** 109 establezimenduetan bermatua dago.

Aduna

- 7 establezimendu, horietatik bi erdaldunak. Ez dute eskaerarik jaso.

Alegia

- 39 establezimendu daude, horietatik 28 bisitatu dituzte eta denetan euskarazko ahozko tratua bermatuta dago. 36 eskaera jaso dituzte.

Amezketak

- 15 establezimendu eta 3 elkarte. Guztira zazpi bisitatu dituzte eta

bat erdalduna. 11 eskaera jaso dituzte.

Anoeta

- 25 establezimendu, horietatik bat erdalduna, eta 12 eskaera jaso dituzte.

Irura

- 17 establezimendu daude, horietatik bi erdaldun, eta guztira 17 eskaera.

Besteak

- Leaburu-Txarama, Altzo, Ikaztegieta, Baliarrain eta Gaztelun 10 establezimendu daude. Guztira 6 bisita egin dituzte eta horietatik bat erdalduna da. 21 eskaera jaso dituzte.
- Belauntza, Oresa eta Orendainen bakoitzean establezimendu bat dago, baina oraindik ez dute bisita egin teknikariek.

Eskaera eginez hiru-lau urte daramatatzatela dio. «UEMAko bileran azaldu genuen gure arazo handiena hori dela. Guk hamabostean behin aldatzen ditugu eskaintzak eta beti gaztelaraz bidaltzen dituzte», zehazten du Urkizuk. Bezeroen gehiengo handi batek euskaraz egiten duela dio eta jende gaztearen artean «denek egiten dutela» euskaraz. UEMAK eskaintzen dituen zerbitzuei dagokionez, ordutegi txartela eskatu diete.

Anoetako Kuku-Lore liburu dendako Maribel Iraolak zenbait produktu euskaraz lortzeko zailtasunak izaten ditu. «Zoriontzeko txarteletan ez dago eskaintza handirik. Bilbotik ekartzen ditut. Artez Euskara Zerbitzuak enpresatik. Ohiko banatzaileek ez dituzte izaten».

Beste produktuei dagokionez,

ipuinak eta denbora-pasak euskaraz gehiago saltzen direla azaltzen du Iraolak. «Hamalau urte arte askoz ere gehiago saltzen dira euskaraz. Gero, adin horretatik aurrera aldaketa izaten da. Nobelak gaztelaraz irakurtzen dira gehiago». Bestalde, eskari handia duten haurrentzako zenbait komiki, Mortadelo eta Filemon adibidez, ez daude euskaraz. «Askok esaten dute komiki gutxi daudela euskaraz», gaineratzen du Iraolak.

UEMAk guztira 97 eskaera jaso ditu establezimenduetatik kanpainan zehar

Euskarazko produktuak ondo saltzen diren adibidea ere badu Kuku-Lore dendakoak. Nerabeek



Anoetako Maite Janari-dendan eskaintzen kartelak erdaraz jasotzen dituzte egoitza nagusitik. Eskuineko irudian, UEMAK tabernetan mezu ezberdinak jartzeko eskaintzen dituen txartelen adibidea. I. GARCIA



gehien erosten dituzten agenda motak euskaraz ekarri zizkieten aurretik eta gehiago saltzen dira gaztelarazkoak baino. «Bestela ere saltzen dira, baina euskaraz izanda, gusturago erosten dituzte», azaltzen du Iraolak.

Merkatariek zerbitzua eskertzen dute

Alegian Ana Muruak jantzi denda du eta UEMAKo zenbait material erabiltzen du: merkealdiko txarte-

Imanol Haro: «UEMAren eskaintzaren berri aldia behin ematea ezinbestekoa da»

lak, prezioak zenbatetan merketu diren erakusten duen txartela, fakturak egiteko agiria, ordutegia...

«Lehen eskuz egiten nituen txartelak eta orain UEMAKo materiala erabiltzeko erraztu egiten dit lan hori. Gainera dohainik dira eta eskertzekoa da hori ere».

Fakturak lehen gaztelaraz egiten zituen eta orain UEMAK utzi-tako agiriak erabiltzen ditu. «Horiekin badakit fakturaren kontzeptuak ondo jarrita daudela euskaraz», azaltzen du Muruak.

Herri berdineko Jubilatuen tabernan ere UEMAKo zenbait txartel erabiltzen dituzte. «Euskararen alde egin daitekeen guztia ondo iruditzen zait», azaltzen du Mari Jose Leunda bertako arduradunak. Zabalik dagoen esateko, erreterik badagoen argitzeko, salda dagoela esateko... horrelako txartelak eskatu dituzte.

Leundak azaltzen duenez, «txartelak euskara hutsean jartzen

saizten gara. Askok esaten didate erdaldunek ez dutela galdetuko eta nik erantzuten diet galdetuko dutela jakin nahi badute».

Mamen Iñurritak ile-apaindegia du Amezketan. Prezioen zerranda euskaraz jartzeko eskaria egin die UEMAKoei eta baita Berehala etorriko naiz dioena ere. Aurretik eskuz jarrita zituen. Iñurritari «garrantzitsua» iruditzen zaio kanpora begirako txartelak euskaraz izatea eta «beharrezkoa» Amezketaz bazezala herri batean.

Iñurritak «oso ondo» ikusten du merkataritza kanpaina egitea. «Nik uste dut zenbait establezimenduetan erdaraz izango dituztela, ez ezer daukatelako hizkuntzaren kontra, baizik ohiturarengatik. Horrelako kanpainak konturazten dizute eta ondorioz aldarazi ere bai».

Hilberriak eta urteurrenak

I. urteurrena
JUAN MIGEL ERRAZKIN URKIZU
2009ko urtarrilaren 25ean hil zen Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-
Emaztea Pilar Otaño; seme-alabak: Iñaki eta Nagore; eta gainerako ahaideak.
Urteurrenako meza GAUR LARUNBATA arratsaldeko 19:00etan egingo da Tolosako San Frantzisko parrokiari. Bertaratuko zaretenei aurretik mila esker.
TOLOSA
2010eko urtarrilaren 30a

MARIA LAZKANO ETXANIZ
(Kintin Etxeberriaren alarguna)
Atzo hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-
Seme-alabak: Jose Luis (†) eta M^a Feli Lizaso, Ana eta Angel Aldabaldetrekua, Jesus M^a (†) eta Modesta Unanue, Mary Beny eta Patxi Martija, M^a Jesus eta Fernando Bereziartua, Arantxa eta Javier Azpillaga; senideak: Nikolas (†), Serfina (Lekaimea), Josefina eta Crispin Agirre (†), Karmen (Leikamea), Martzelina (†), Nikolas eta Rita Odriozola, Sebastian Peña eta Mari Tere Garate, Kintin Peña (†), ezkon senideak: Nikolas (†) eta M^a Teresa Azkune (†), Sebastian (†) eta Iñaki Zulaika (†), Ana (†) eta Antonio Zapirain (†), Benita eta Jose M^a Korta; laguntzaileak: Ana Velasco; bilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzela GAUR larunbata, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zestoako Jasokundeko parroki elizan, pua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Helbidea: Basadi 78, 3B.
Oharra: Hilbela Zumaiko Tanatorioan dago, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik hileta ordurarte.
ZUMAI
2010eko urtarrilaren 30a

MARIA LAZKANO ETXANIZ
(Kintin Etxeberriaren alarguna)
-Goian bego-
Agur esan diguztu, Mina da denona; Utzia baitiguzu Arrasto sakona. Denontzat izan zera Ama nahiz amona Huts handia utzi du Zure bihotz onak.
ZUMAI
2010eko urtarrilaren 30a
Bilobak: Aloña eta Juan, Kintin eta Nerea, Lierni, Gotzon, Asier, Eider, Eneitz eta Iker, Maider eta Mikel, Rafael eta Alazne, Arribu eta Jorge, Garbiñe, Maite eta Xabier, Juan M^a eta Amaia, Nerea. Bilobak: Naroa, Uxue eta Intza.

CANDIDA LARRAÑAGA ZUBIMENDI
(Jose Mantzisorren alarguna)
Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-
Bere seme-alabak: Benantzi eta Raimundo; bilobak: Inigo eta Elena, eta Iban, Briolba; Aina, Aina, Ilobak, Lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzela GAUR larunbata, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zestoako Jasokundeko parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
ZESTOA
2010eko urtarrilaren 30a
Helbidea: Uztapide Plaza -1- 3. esk.
Oharra: Bere familiak ez du inor hartuko. Hilbela, gaur, arratsaldeko Setatik, hileta ordurarte, Azpeitiko Carmona Tanatorioan egingo da.

JOSE MARI ALDALUR AIZPURU
Azpeitian hil zen 2010eko urtarrilaren 28an
Biele-ko zuzendaritza eta langileek Langile on bati
Beti gogoan izango diagu hire umorea eta alaitasuna
Biele
Hileta elizkizuna gaur izango da, larunbata, Errezilgo Parroki Elizan
AZPEITIA
2010eko urtarrilaren 30a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizardza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Etxe eta Laia gaur Bonberenan 22:30ean.
■ **Tolosa.** Udal Txistulari Banda eta Tolosako Musika Bandaren kontzertua bihar lurreamendin 11:30ean. Donostiako Danborradaren eta Kalderero zein Inauteri doinuak eskainiko dituzte. Juan Colmeneroren *Tolosako Danborrada* ere joko du Musika Bandak.

Deialdia

■ **Anoeta.** Herriko Ezker Abertzalearen udal taldeak herri batzarra egingo du gaur udaletxean 11:00etan. Udalaren egoera ekonomikoa, udal finantziazioa eta 2010rako dituzten egitasmo eta aurrekontuak aztertuko dituzte.

Zinema

■ **Tolosa.** *Donde viven los monstruos* haurrentzako filma bihar Leidor aretoan 17:00etan.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** 28 Klik. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Sagardotegi irekiera. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Perretxikoak. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Nonochan. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** On ein! **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Artegitza.

(*12:30etik 16:00etarako blokea lau ordu errepikatuko dute)

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bakea aldarrikatu dute Hirukidetik

TOLOSA ■ Bakearen Egunaren harira, Tolosako Hirukide eskolako ikasleek «bakearen aldeko ekitaldia» burutu zuten atzokoan. Batetik, Triangulo plazan DBHko ikasleak bildu ziren, eta *Betor bakea* entzuten zuten bitartean, *bakea* hitza irudikatu zuten, bakearen inguruko mezuakin eginiko

katea lotzearekin batera. Arratsaldean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak bildu ziren Hirukide Jesuitinetako patioan antzerkia egin, abestu eta bakearen aldeko manifestua irakurtzeko. Aste osoan landu dute gaia, eta atzokoa izan zuten ekitaldi nagusia. HITZA

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>